

**Abstentzioak gora
egin zuen Gorteetarako
hauteskundeetan**

**Larunbatean agerraldia,
Erraustegia Erabakia
taldeak deituta**

**San Joan jaiak,
iruditan**

noaua



Festetan murgiltzeko garaia da

BIDAIA TALDEAN

Irteera Lasarte-Oriatik

ARGENTINA



iparretik hegora

·AURREIKUSITAKO IRTEERA 2017/01/30·



Erreserbak eta informazioa bulegoan



NOAO BIDAIAK
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea, 10
20160 Lasarte Oria, Gipuzkoa
T. 943 373 633
info@nooabidaiak.com
www.nooabidaiak.com



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHI

☎ **943 36 46 00**

www.lhusurbil.eus

Erdi eta goi mailako zikloak A, B eta D Ereduak

Administrazioa

Elektrizitate-elektronika

Fabrikazio mekanikoa

Ura eta energia
Produkzio zerbitzu eta manten.



Honako honen bila bazabiltza: Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

MATRIKULAZIOA uztailaren 11tik 15era



Albiste iruditzen

San Joan gaua, erraustegiaren aurkakoa

Gipuzkoa Zutitek San Joan bezperako ospakizunetara maskarilekin jantzita agertu eta erraustegiaren aurka mobilizatzeko eginiko deialdiak oihartzun zabala izan zuen. Zubieta, Oiartzun, Ataun, Eibar, Lasarte, Urnieta, Hernani, Arrasate... zutitu ziren ekainaren 23ko gauean, erraustegiaren aurka.

Sutan daudela adierazi zuten, eta sutan jarri zituzten sare sozialak, #SutanGaude traola baliatuz. Maskarilekin asko, kalejiran irten ziren Lasarten, errauskailua sutara botatzen zutela irudikatu zuten Arrasaten, San Juan suaren bueltan maskarilekin dantzan egin zuten Hernanin edota Lasarten, herritarrek informatzeaz gain erraustegiak jendarterako dakarren kaltea irudikatu zuten Oiartzunen, bizitzaren aldeko pankartaren atzean bildu zen eibartar, urnietar edota ataundar mordoak...

San Joan gaua, bizitzaren aldeko eta



Zubietan, errausketaren aurkako pankarta asko ikus zitezkeen. Argazkia: Erraustegiaren Aurkako Mugimendua.

erraustegiaren aurkako gaua ere izan zela adierazten duten adibide batzuk baino ez dira honakoak. Gipuzkoa Zu-

tik-ek maiatzaren 29an abiatutako dinamika herrialde osora zabaltzen hasi izanaren adierazle.

Laburrean

Meza, Santixabel Egunez

Uztailaren 2rako deitu du hitzordua Usurbilgo Parrokiak: "Santixabel Egunean, zaindari dugun ohoretan eukaristia ospatuko dugu Salbatore Parrokian 11:00etan".

58koen kinto bazkaria

Irailaren 10ean bilduko dira, 14:00etan Antxetan. Aurrez 50 euroko ordainketa egin behar da (irailaren 5a arte); kontu zenbaki honetan: 3035 0140 36 1400030013 (Euskadiko Kutxa).

Ibilgailu klasikoekin topaketa

Uztailaren 16an izango da. Aurten berrikuntza bezala, moto klasikoekin erakusketak antolatu dute Sutegin. Ibilgailu klasikoak ikusgai izango dira Kontseju Zarra kalean. Argazki rally-a ere egingo da.

noqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus
Jendaurrereko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Luken Arkarazo

Britain exit

A tzo, 2016. urteko ekainaren 24an Britaina Handiak Europar Batasuna uzteko erabakia hartu zuen. Izan ere, gurean pekatua dena, ariketa demokratikoa da hemen. Ariketa demokratiko, ala trikimailu politikoa? Hots, anitzak dira Erresuma Batua Europar Batasunetik aterako duen erabakiaren baitan sortu diren galdera, kezka eta ondorioak. Bitxia, nire ustean, hura aurrera eramateko arrazoi nagusia. Hauetako batzuen inguruan argi eta iritzi printz batzuk botatzera noa.

Gure logika historikoak pentsatzera eraman gaitzakeenaren aurka, ez da herri presioa izan erreferenduma egiteko erabakia hauspotu duen haize bolada. Aitzitik Britainia Handiak Batasunarekiko mesfidantzazko posizio bat izan duen arren, David Cameron Lehen Ministroa izan da ekimen honen ideologo eta bultzatzaile nagusia. Baita Remain-aren (Batasunean mantentzearen) aldeko kanpainaren burua ere. Baina nola liteke orduan, buruzagi po-

litiko batek, eskakizun kolektiborik gabe, aurka dagoen planteamendu bati ateak irekitzea? Ba etxeko arazoak konpontzeko. Hau da, batetik buruzagi den Alderdi Kontserbadoreko ahots dibergente euroeszeptikoei herriaren babesik ez zutela ikustarazteko. Bestetik Europa osoko dinamikari jarraikiz, Ukip alderdi ultrasukuindar eta eurofoboaren dinamika gorakorra gertatzeko. Garbi eta motzean, alderdiko lidergotza egonkortu eta eskuinerantz ihesi doan boto galera ekiditeko. Jokaldia ordea, gaizki ateratzen da. Honela, bozketa galdu eta gidatu beharko lukeen prozesu apurtzailearen buru izan ezin daitekeela onartu ostean, hiru hilabeteren buruan kargua utziko duela iragarri du. Bere lekua Alderdi Kontserbadoreko Brexit-aren aldeko kide batek hartuko duela iragarri du. Hauxe izan da agian, Brexit-aren kanpainaren inguruan gehien harritu nauena. Alderdiak zatikatuta (batez ere kontserbadore), bakoitza bere idealak defendatuz, aurrez aurre, eztabaida bizian. Imaginatzen duzu hori Euskal Herrian? Lasai, nik ere ez.

Bandoei so, hauek izan dira, hurrenez hurren Remain-aren eta Leave-aren aldeko partaideak: lehen Alderdi Kontserbadorearen zati handi bat Lehen Ministroa buru, Jeremy Corbynen Alderdi Laboristaren gehiengoak, Eskoziako Alderdi Nazionala Plaid Cymru Galeseko alderdi nazionalista, Sinn Fein eta Ipar Irlandako Alderdi Unionistaren zati moderatua. Bigarrenaren, apurketaren aldeko konserbadoreak (Boris Johnson buru) eta Nigel Faragearen Ukip eurofoboa. Kanpainan, garaiaren bila, Remain-aren aldekoek Batasunaren alde onak (baldin baditu) goraitatu beharrean, hura uztearen ondorio larriak azpimarratu dituzte. Leave-aren aldekoek bestetik, inmigrazioaren gai sentikorra begipuntuan jartzea nahikoa izan dute bozketa irabazteko. Asko dira egun hauetan egin diren irakurketak, zabalduenak dio, xenofobian, hezkuntza ezan eta gizartearen zahartze prozesuan daudela emaitzaren gakoak. Nik gehiago lotuko nuke Europako erakundeetatik azken urteetan bultzatu den austertate ekonomikoarekin, eskubide

murrizketarekin, Ongizate Estatuaren desagerpenarekin eta oro har, sozialdemokraziaren heriotzarekin. Ezin azpimarratu gabe utzi, Ingalaterrako langile klasea izan dela Brexitaren zutaberik trinkoena. Eta Britainia Handiko Lehen Ministro ohiak, banketxe nagusiak, botere finantzarioak ... izan direla Remain-aren kanpainako protagonistak.

Eta tira, mugari honetara iritsita, denon mingain eta garunetan saltoka dabilen galdera formulatuko dut: eta orain zer? Zein izango dira Brexit-aren ondorio politiko, ekonomiko eta territorialak? Hasteko, azken honi heldu beharko dio kolokan dagoen britainiar gobernuak. Izan ere, aurreikuspenak betetz, %60tik gorako babesarekin, eskoziarrek Europar Batasunean mantentzea erabaki dute. Bizitzaren paradoxak, Batasunetik kanpora joango zirela mehatxatuz eskoziarren independentziaren kontra egin eta garaitu zutenak, bertara eraman ditu azkenean.

Imanol Ubeda | Idoia Torregerai | Maialen Unanue | Ilazki Gaintza | Luis Aranalde | **Luken Arkarazo** | Aritz Gorriti

Ika-mika

Erraustegirik ez (3)

E kaineren 19an itsasoari begira Donostian egin genuen aldarrikapen-manifestazio-desfilearen erantzun ausart eta jendetsua bizi ondoren, *aupe zuek, eta zergatik ez, guztiok!*, esaldiaz oroitu nintzen. Izan ere, Antiguako tuneletik irten eta Udaletxera bidean gindoazela pasealeku guztia betetzen genuela ikusi eta "ona duk" aldame-

nekoie entzutea, bidea ondo egiten ari garen adierazle garbia izan da niretzat.

Zer esanik ez, helduon jantzi beltza umeen gardentasuna babesteko baliagarritzat erabili izana. Guztia umore onean eta pertsonok barnean dugun era osasuntsu eta naturalean erakutsiz.

Ezin dut ahaztu GuraSOS elkar-

teak zeraman hasierako pankartak "OSASUNA ARRISKUAN? INOLAZ ERE EZ!" zioena. Getariatik Oiaritzuna eta Donostiatik Tolosara bitartean, 201 eskola eta 69.119 haur (eta helduok kontatu gabe) Zubietan eraini nahi duten erraustegiak "harrapatzen" dituen eta gaituenak.

Guztiok, norbanakoon eta bereziki ondorengoan ongizate eta

osasuna babestu eta aldarrikatu genuen Donostian.

Aurrean jartzen dizkiguten eta zaizkigun oztupo ez naturalak sahistuz, jarrai dezagun ondorengoak eskertuko diguten osasuntsuago den bide beretik.

Erraustegirik ez Zubietan ez inon.

Orkatz*

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: uztaileak 8. Idatzia ekartzeko azken eguna: uztaileak 4.

Larunbatean udaletxe aurrean, galdeketa iragartzeko agerraldia

Erraustegia Erabakia herri plataformak ekainaren 18an deitutako batzarrean, erraustegiari buruzko galdeketa egitea erabaki zuten Usurbilen eta Zubietan, irailaren 30ean, urriaren 1ean eta 2an. "Erraustegia egitea nahi al duzu?" galdetuko dute. 16 urtetik gorako herritarrek parte hartu ahalgo dute galdeketa.

Antolaketa lanak herritarrek bideratuko dituztenez, herritarrei galdeketa egingo dela iragartzeko larunbat honetan egingo den agerraldian parte hartzea deitzen zaie. Agerraldi jendetsua izatea nahi dute. Bertaratu beraz uztailaren 2an, larunbat eguerdiko 13:00ean udaletxe aurreko plazara.

- Galdeketa jorratzen ari den bidea
- 2015/10/30: Erraustegia Erabakia herri plataformaren agerraldi aurkezpena, Mikel Laboa plazan.
 - 2015/11/07: Erraustegia Erabakia jendaurrean aurkezteko lehen batzarra egin zuten Potxoenean.
 - 2015/11-2016/01: Usurbilgo Udalarri erraustegiari buruzko herri galdeketa antolatzea eskatzeko sinadurak biltzen aritu zen herri plataforma.
 - 2016/01/30: 1.185 usurbildarren sinadurak bildu ostean, sinadurok Usurbilgo Udalarri entregatu zizkion Erraustegia Erabakia herri plataformak.
 - 2016/02/23: osoko ohiko bilkuran, herri galdeketa eta galdera

Erraustegiaren aurkako manifestazioa

Txosnagunea erraustegiaren aurkako ekimenetara batu da. Jaien hasiera ofizialaren atarian, manifestazioa deitu dute. Ostegun honetan, 18:30ean abiatuko da txosnagunetik. Herri erdigunea zeharkatuko du.



Larunbat honetan, eguerdiko 13:00ean agerraldia egingo dute udaletxe aurreko plazan.

ERRAUSTEGIA ERABAKIA

Irailaren 30ean, urriaren 1ean eta 2an egingo da. "Erraustegia egitea nahi al duzu?" galdetuko dute. 16 urtetik gorako herritarrek parte hartu ahalgo dute galdeketa

- onartu zituzten gehiengo osoz: "Usurbilgo hondakinak tratatzeko erraustea egoki iruditzen al zaitzu?"
- 2016/03/04: Usurbilgo Udalarri erraustegiari buruzko galdeketa antolatzeko eskaera luzatu zion Espainiako Gobernuari.
 - 2016/05/13: erraustegiari buruzko herri galdeketa egitea debekatu zuten Espainiako Gobernuo Ministroen Kontseiluak.
 - 2016/05/19: debekuaren au-

rrean, Usurbilgo Udalarri galdeketa egiteko eskumena herritarrei itzuli-ko diela jakinarazten du.

- 2016/06/18: Udalarri galdeketa egiteko eskumena herritarrei itzuli ostean, batzar irekia deitu zuten Erraustegia Erabakiak. Aho batez galdeketa egitea onartu zuten, galdeketa egunak finkatu, lan batzordeak osatu...

■ 2016/07/02: Usurbilgo herri galdeketa berri emateko agerraldi jendetsua deitu du Erraustegia Erabakia herri plataformak. Herritarrei jaietako egun handian hitzordu honetan parte hartzea deitzen zaie.

- 2016/09/30-2016/10/02: erraustegiari buruzko herri galdeketa irailaren 30ean, urriaren 1ean eta 2an, Usurbilen eta Zubietan.

16 urtetik gorako herritarrek parte hartu ahalgo dute. Galdetuko dena: "Erraustegia egitea nahi al duzu?"



Ostegun honetan egingo da. 18:30ean abiatuko dira txosnagunetik.

Gipuzkoa Zutik, fase berrian

Etapa berria abiatu du mugimenduak. Donostiako kanpaldi iraunkorrari amaiera ematea erabaki dute, baina ez da inolaz ere hemen etengo, maiatzaren 29an abiatu zuten dinamika, ohar bidez jakinarazi dutenez:

"Gipuzkoa Zutik ez da bukatu, hasi besterik ez da egin. Donostiako plazak hartu ditugu eta gehiagora goaz, ilusioz bete garela eta gure artean saretu garela. Lotara etxera goaz, loa eta elkarren zaintza ezinbestekoa dugulako. Eta etxera goaz kaleetan ekintzak egiten jarraituko dugulako, asanbladetan elkartuko gara ziur gaudelako.

Honekin etapa berri bat hasten da, erraustu gabe Gipuzkoan sua zabalduko duena. Jaietan egongo gara, udan zehar indarrak batuko ditugu. Irailean bueltatuko gara eta erraustegiaren obrak geldituko ditugu, proiektu bidegabe guztiak geldituko ditugu.

Erraustegia geldituko dugu, Ustelak lurpera bizi da handiena."

Gipuzkoa Zutik

Facebook: Gipuzkoa Zutik
Twitter: @GipuzkoaZutik

Buruntzaldea Zutik

Twitter: @buruntzazutik

GuraSOS-en manifestua sinatzeko aukera dago oraindik

15.000 lagunek bat egin dute GuraSOSen manifestuarekin. Noiznahi sinatu dezakezue gurasos.org atarian sartuta. Bildutako atxikimenduak Foru Aldundira bideratuko dituzte gero, erraustegiak seme-alaben eta guztion osasunean izan dezakeen eraginagatik kezkatua dagoen guraso taldeak.

EHBildu nagusi, baina Elkarrekin-Ahal Dugu izan da botoetan igo den bakarra

EHBildu nagusitu da Usurbilen, Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan. Bozken %23,71 eskuratu, guztira 1.109 herritarrek babestu dute koalizioaren hautagai zerrenda. Atzetik, 300 bat bozketara geratu da Ahal Dugu; 868 bozka (%18,56) eta hirugarren EAJ. Jeltzaleek 550 bozka (%11,76) jaso dituzte guztira.



Abstentzioak ere gora egin zuen ekainaren 26ko hauteskundeetan.

Abenduaren 20ko hauteskundeekin alderatuta, modu proportzionalen ia alderdi guztiek galera izan dute bozka

kopuruan. Ez ahaztu, abstentzioak 4 puntu egin duela gora oraingoan, aurreko deialdiko %31,39tik %35,56ra. Bozka

eskubidea zuten hiru usurbildarretik batek hauteskundeetan parte hartzeari uko egin zion igandean; 4.677 usurbil-

darretik 1.663 lagunek. Estatu espainiarreko %30,16ko abstentzioa bost puntutan gainditu du Usurbilgoak. Hego Euskal Herrira etorrita, %32,56koa izan da bozkatu gabe geratu diren herritaren ehunekoa Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, %29,42koa Nafarroan. Gipuzkoan %34,29koa.

Auzokako datuei dagokienez, auzo guztietan EHBildu nagusitu da. Bigarren alderdi bozkatuena Ahal Dugu izan da. Aginagan soilik izan da hirugarren indar bozkatuena, tarte txikiz bada ere, EAJ-ren atzetik.

Gorteetarako emaitzak Usurbilen

	2016KO EKAINAREN 26AN		2015EKO ABENDUAREN 20AN	
	Botoak	%	Botoak	%
EH BILDU	1.109	37,03	1.362	42,46
UNIDOS-PODEMOS	868	28,98	-	-
PODEMOS	-	-	690	21,51
IU	-	-	40	1,25
EAJ-PNV	550	18,36	616	19,20
PSE-EE/PSOE	245	8,18	255	7,95
PP	129	4,31	139	4,33
CIUDADANOS	55	1,84	66	2,06
PACMA	17	0,57	13	0,41
RECORTES CERO-GRUPO VERDE	4	0,13	1	0,03
PCPE	2	0,07	-	-
UPyD	1	0,03	2	0,06
LIBERTATE NAFARRA	-	-	3	0,09
Zuriak	15	0,50	21	0,65
Baliogabeak	19	0,63	11	0,34
Parte-hartzea	3.014	64,44	3.219	68,83
Abstentzioa	1.663	35,56	1.458	31,17

** 2015ean IU eta Podemos bakoitza bere kasa aurkeztu zen. 2016an Unidos-Podemos koalizioan aurkeztu dira elkarrekin.

Emaitzak Senatuan

Madrilgo Diputatuen Kongresuan gertatu bezala, EHBildu nagusitu da baita Senatutarako hauteskundeetan ere. Bozken ia %40 jaso dute koalizioak aurkezturiko Gipuzkoako hiru hautagaiek. Usurbildarren %21-24 arteko babesa jaso dute Ahal Duguko hautagaiek. %19 ingurukoa EAJ-koek. Dezente atzerago geratu dira PSE-EE bozken %8 inguru jasota edota PP (%3-4).

Abstentzioak gora

Kongresuko emaitzetan, %35,56eko abstentzioa izan da. Senatuan %35,94koa. Abenduaren 20ko datuekin alderatuta, 4 puntu igo da.

Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.eus



Hastera doaz Alperroburu kaleko lanak

Aurreko astekarian iragarri genizuen, Udarregi Ikastolako Agerialde eraikin parean, Alperro-Buru kalean hobekuntza lanak egitera zihoazela. Euri urak eta ur zikinaren sarea erdibituko dute, atzeko patiotik kalean behera jaisteko oinezkoen bidea babestu. Oinezkoek izango dute lehenetasuna, ikasleen sartu irteera orduetan eta jolasgaraietan. Eta norabide bakarrekoa izango da Alperro-buru kaleko eremu hau aurrerantzean.



Agerialde atzealdeko patiotik aldapan behera jaisteko baranda babestuko dute, zebrabidea eta aparkalekuak egokitu. Errepideari ere eragingo diote berrikuntzek. Ikasleen jolasgaraietan, eta ikastolara sartu eta ateratzeko orduetan eremu hau autoen joan etorrirako itxita geratuko da.

Ikasturte berria hasterako, irailera hasierarako beraz lanak amaituta izatea aurreikusiten dute.

Lanak asteartean, uztailaren 5ean abiatuko dituztela berri

eman du Udalak. Lanok Construcciones Lasuen S.A. enpre-

sak bideratuko ditu. 85.881,95 eurotan esleitu dituzte obrak.

Euskara eta aisialdiko diru-laguntzak eskatzeko garaia da

Uztailaren 8ra arte aurkeztu daitezke eskabideak udal erregistroan. Gogoan izan, euskara doan ikasteko urrats garrantzitsua eman duela Udalak.

%100a berreskuratzeko aukera

Ikasturte honetan euskara ikasten aritu zareten 16 urtetik go-

rako usurbildarrok, ordaindu duzuen diru-kopuruaren %100a itzuliko zaizue, gehienez 500 euro, baldintzok betetzen dituzuenoi: gutxienez, ikastaro osoan zehar, %80ko asistentzia izatea (autoikaskuntzaren kasuan aprobetxamendua ziurtatzea); euskaltegiak egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharreko gutxienezko aprobe-

txamendua gaintzea.

Dokumentazioa

Aurkeztu beharko den dokumentazioa; diru-laguntza eskari normalizatua; eskatzailearen NANaren fotokopia; matrikularen ordainagiria; %80ko asistentziaren edo autoikaskuntzaren aprobetxamenduaren egiaztagiria.

Aisialdiko udal laguntzak

2015-16 ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak euskaraz egin dituzten 16 urtetik gorako usurbildarrentzat zuzendua dago deialdi hau. Ezinbestekoa izango da ikastaroa Eusko Jaurlaritzak homologatua izatea, eta euskaraz egin izana. Eta "ikastaroaren alderdi teorikoa gaintzea eta araututako gehienezko epearen barruan titulua lortzea".

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskaria bera, NAN fotokopia, matrikularen ordainagiria, ikastaroan matrikulatu izanaren agiria edota atal teorikoa gaintitu izanaren Aisialdi Eskolaren ziurtagiria.

Matrikularen %50 itzuliko da

Kasu honetan, aurreko urteen antzera, matrikularen %50 itzuliko da. Begirale ikastaroaren kasuan, gehienez 250 euro; aisialdiko zuzendari ikastaroaren kasuan, gehienez 170 euro. Informazio gehiago: ekainaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Errioa eta inguruak biziberritzeko plana

Oria ibaiaren Paisaiarako Ekintza Plana herritarren ekarpenez osatu asmoz, parte hartze prozesua abiarazi zuen Udalak. Gai honi buruzko inkesta betetzeko aukera dago. Orriak, Sutegin, Potxoenean, Kiroldegian, anbulatorioan eta udaletxean eskura ditzakezue.

Udalaren weborrian ere osatu daiteke inkesta: usurbil.eus

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ARRANDEGIA PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

Talariak 36-60
INQUIETUD
JANTZI-DENDA
Nagusia 49, LASARTE-ORIA

Erromeria zaletuena ere bada Santixabel Eguna



Iaz bezala, Triku taldekoak Santixabel egunean arituko dira kalejiran.

Iaz ekimenak izandako arrakasta ikusita, Triku taldekoak, usurbildar trikitilari eta panderojoleak kalejiran ikusiko ditugu berriz Santixabel Egunez. Kalejira egingo dute lehenbizi, Artzabalen bazkaldu gero, eta arratsalde partean, txosnagunean Estanga anai-arrebekin ospatuko den erromerian ere parte hartuko dute. Hasieran, emanaldi labur bat eskainiko dute oholtza gainean. Eta gero plazan izango dira dantzan.

40 laguneko koadrila osatu zuten iaz

Larunbatez egokitu zaie aurten go hitzordua, eta iaz baino jende gutxiago bilduko omen dute, ez baitute lan erraza izango iazko marka haustea. 40 laguneko koadrila osatu zuten, due la urtebete. “Ikaragarria izan zen, harrিতта geratu ginen. 40 bat lagun etorri ziren”, gogorazi digute Triku taldeak.

Kalez kale egin zuten biran ere harrera beroa izan zuten herritarren aldetik. “Oso ondo pasa zuen jendeak. Ekimenak izandako arrakasta ikusita, bide horretatik segitu behar zela ikusi genuen”, gaineratu dute.

Jendea ez zen hurbildu kalejirakoek trikitia eta panderoa

TRIKU TALDEA

“Iaz, ekintza politenetakoa izan zen. Eta askok halako zerbait falta zela ere adierazi ziguten”

nola jotzen zuten ikusi eta entzutera soilik. Buru-belarri parte hartzen aritu zen. Usurbildarrak dantza batean jarri zituzten. “Askok zoriondu ziguten, 40 laguneko koadrila ikusita, denok herritarrak gainera. Ekintza politenetakoa izan zela iazko jaietan, hori ere askok esan digute. Eta askok halako zerbait falta zela ere adierazi ziguten”, balorazio ezinhobea egin du beraz, Trikuak.

Motibagarri, zaletasuna bizirik mantentzeko

Eta horri eutsi nahi diote aurten. Trikitia eta panderoa jotzen segitzen dutenak edo garai batean musika instrumentuok esku artean izan zituztenak batuko dira uztailearen 2an. Formatu erakargarria izan ohi da parte hartzaileentzat. Eta motibagarria, zaletasun hau bizirik mantentzeko. “Gehienbat proiektu hau hortik sortu zen. Jende asko 16-17 urterekin musika eskolatik irten eta trikitixa

jotzeko gunerik gabe geratzen dira. Orduan bazterrera uzten du trikitia. Taldea gehienbat trikitixa edo panderoa jotzen segitzeko osatu zen. Urtean hiruzpalau afari egin eta biltzeko. Jendeak aitzakia horrekin etxean trikitia jotzen du”, adierazi digute.

Erazago animatzen da bat gainera, halako kalejira batean jendaurrean trikitia jotzera, talde handi baten babespean doanean. “Pauso hori emateko koadrilak babesa ematen du. Geratzeko gogoia izanda geratu egiten zara”, eta arazorik ez. Ondo pasatzea baitute helburu nagusia. Eta aurrean dituztenak ondo pasaraztea. Kalera eta plazara gonbidatzen dituzte herritarrak larunbat honetan, erromeria giroan murgiltzera. Adin guztietakoak, baina bereziki gazteak. Hor dago eta, erromeria giroak bizirik eusteko etorkizuna.

Egunotan azken prestaketa lanetan zebiltzan Triku taldekoak. Garai berriotan, whatsapp noski. “Santixabeletako whatsapp taldea dugu, bideoak bidaliz aritu gara, piezak grabatuz, kalejiran ze pieza joko diren prestatzen”, aurreratu digute Triku taldeak. Uztailearen 2an irtengo dira kaleak girotzera.

Astelehenetik aurrera, Udajolas

Usurbilgo Udalak eta NOAUA! Kultur Elkarteak antolaturiko udako txokoe-tan izena emana duzuenok gogoan izan: festak amaitu eta biharamunean, uztailearen 4an hasiko da Udajolas. Uztailearen 29ra arte luzatuko da aisialdiko eskaintza. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 09:30-13:30 artean. Frontoia izango da biltzeko gunea.

Peñaloscintos, gaztetxoak hartzeko prest

Urtero moduan auzolanean altxa dute Ziortzak uztailean Peñaloscintosen (Errioxa) egingo duen kanpaldia. Auzolanean egokitu zuten gunea asteburuan, bertara joan ziren herritarrek. Ondoko argazkia atera zuten. “Egun luzea izan genuen Peñaloscintos aldean, baina merezi izan du ahaleginak! Mila esker muntaketan lagundu zeniguten guztioi!”, adierazi dute gazte elkarte-koek.

Asteartean doaz lehen txandakoak, uztailearen 19ra arte egongo dira. Eta egun horretan helduko dira bigarren txandakoak, hilaren 29ra arte egongo dira Errioxa aldean. Kanpaldia abuztuko lehen asteburuan desmuntatuko dute. “Desmuntaketa eguna abuztuak 7an dugu! Oraindik izen eman ez baduzu gogoratu ziortzage@gmail.com bidez egin dezakezula. Eskerririk asko!”, ohartarazi dute Ziortzakoek.



Asteartean joango dira lehen txandako gazteak.

Edalontzi berrerabilgarriak jaietan



Edalontzi berrerabilgarria, tabernariekin batera adostutakoa, edalontzi garden eta ikurrik gabekoa izango da.

Plastikozko edalontzi berria, gardena, ikurrik gabekoa, herritar askoren eskutan ikusiko dugu jaietan. Txosnetan trago bat eskatuz gero, edaria edalontzi honetan zerbitzatuko digute. Jende asko ibiltzen den orduetan baita tabernetan ere. Bestela, edarrietan beirazkoak lehenetsiko dituzte. Hala adostu dute, Usurbilgo tabernariak, Hurbilago Elkarteak, Usurbilgo Udalak eta txosnaguneko antolatzaileek. Kilometroak jaialdirako eta gerora, jai hauei begira eginitako lanketa eta elkarlanaren

emaitza da ekimen hau.

Gardena, ikurrik gabekoa

“Kilometroetako funtzionamendu ona ikusita, denon ahalegin eta borondatearekin herriko festetan ere basoak berrerabili ditzakegula pentsatzen dugu. Denek baso berrerabilgarri berdina erabiliko dute eta edalontzi berri bat izango dugu aurtengo Santixabeletan. Edalontzi berrerabilgarria, tabernariekin batera adostutakoa, edalontzi garden eta ikurrik gabekoa izango da. Modu honetara, txosna eta ta-

bernan hartzen dugun baso ondorengo tabernan ere utzi edo erabili ahal izango dugu. Beraz, herritarren ardura ere izango da, edalontzi hauek berriz ere erabili ahal izateko tabernariak itzultzea eta hondakin gutxiago sortzea”, ohar-tarazi dute. Eragileok “Usurbilen hondakin kudeaketan arduratsuak izaten badakigula askotan erakutsi dugu” diote, eta jaietan ere beste hainbeste egitera animatzen gaituzte. “Ondo pasa hondakinik gabeko Santixabelak!”, desio diete jaietan murgilduko direnei.

Talde bakoitzak kolore bat izango du Umeen Eguneko ginkanan

Ginkanan parte hartuko duten taldeak osatu ondoren eta kolore berdintsuak aukeratu dituztenez taldeek, antolatzaileek taldeei kolore berriak jarri dizkiete.

Hauek dituzue talde bakoitzeko partaideek eraman behar dituzten kamiseta koloreak: LH1A (Urdina), LH1B (Oria), LH2A (Arrosa), LH2B (Berde argia), LH2D (Urdin argia), LH3A (Zuria), LH3B (Zuri-urdina), LH4A (Urdin iluna), LH4B (Beltza), LH5A (Morea), LH5B (Berde iluna), LH5D (Gorria), LH6A (Laranja), LH6B (Grixa), LH6D (Beltza).

Uztailaren 1ean, 9:30ean frontoian batzeko deia

Ginkanan laguntzeko izena eman zuten DBHko ikasleak, “ginkana egunean goizeko 9:30etan frontoira gerturatzeke eskaera egiten dizuegu”. Ginkana hasi baino lehen, antolatzaileekin bilera bat egiteko asmoa dute.

Eskumuturrekoak erosiz, Lauburu Konpartsa lagundu

Konpartsako materialaren, erraldoi eta buruhandien mantentze lanetarako. Usurbildik kanpo irteera gehiago egin eta konpartsen topaketa gehiagotan parte hartu ahal izateko. Lauburu, Usurbilgo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa zereginotarako laguntza bildu nahi du. Horretarako prestatu dituzte ondoko irudian dituzuen eskumuturrekoak.

Kolore gorrikoak, “Santixabelak 2016” diotenak. Konpartsa izena omenduz, lauburu bat daramate. Herriko saltoki eta tabernetan eskuratu ahalko dituzue jaiak amaitu



Batuko den dirua konpartsako materiala eta erraldoi zein buruhandien mantentze lanetarako erabiliko da.

arte. Konpartsakoak kalean ere saltzen arituko dira. Salneurria; euro bat gehi borondatea.

Bildutako laguntza aipatu moduan, talde honetara bideratuko da osorik.

Konpartsa, egunero kalean

Jai hauetan lanik ez zaie faltako Lauburu Konpartsakoei. Eskumuturrekoak saltzeaz gain, egunero ikusiko ditugu Santixabeletan kalean gora eta behera, erraldoi eta buruhandien. Aurtun estreinako, hitzordu guztiok taldeak berak kudeatuko ditu. Eta eguneroko kalejirei, ekitaldi berri bat erantsi diote oraingoan; Erraldoi eta Buruhandien Topaketa ospatuko da uztailaren 3an. Trapagaran, Añorga, Mutriku eta Zizurkilgoekin batera desfilatuko dute goiz eta arratsalde, Lauburu taldeko erraldoi eta buruhandien.

Ekitaldiz jositako asteburua

Ekainak 30, osteguna

- 06:00 Oilasko biltzaileen gosaria eta irteera.
- 10:30 Haur eta gaztetxoentzako Pintura Lehiaketa. Oharra: materiala bertan banatuko da.
- 13:00 Pintura lehiaketako sari-banaketa.
- 14:00 Oilasko biltzaileen itzulera eta bazkaria. Ondoren, oilasko biltzaileen jolasak.
- 18:30 Erraustegiaren aurkako manifestazioa txosnetatik.
- 19:00 Txupinazoa eta Ikurinaren igoera udaletxetik, Orbeldi Dantza Taldearen eskutik. Ondoren, buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.
- 20:00 Orbeldi Dantza Taldearen emanaldia frontoian.
- 23:00 Txosnagunean herriko taldeak: Arto2xar, Zaparra.

Uztailak 1, ostirala

- 10:00 Ume-gazteei harrera. Zatoz, koadrodun zapi urdina jantzita duzula, haurren eguneko abestia dantzatzera!
- 10:00-13:30 Jolas parkea frontoian eta Artzabalen.
- 10:30-12:30 Ginkana Oiardo Kiroldegian, Artzabalen, frontoian eta Udarregi Ikastolan.
- 11:00 Helduentzako Toka Txapelketa Artzabalen.
- 12:00 Buruhandi eta erraldoiak trikitilariekin.
- 13:00 Gazte eguneko trikitipotea txosnetatik.
- 13:30 Umeen lagunarteko bazkaria frontoian, norberak ekarrita.
- 14:00 Gazte bazkaria txosnetan. Jarraian, Motxaila Band Elektrotxaranga.
- 14:00-17:00 Egurrezko jolasak frontoian.
- 15:00-17:00 Jolas parkea frontoian eta Artzabalen.
- 16:00 Ur bataioa Kiroldegian.
- 16:30 Helduentzako Santixabel Igel Jokoa Artzabalen.



Ostirlean Niko Etxart eta Anje Duhalde arituko dira frontoian.

- 17:00 Apar festa, Udarregiko patio borobilean.
- 18:00 Txokolata Askatasuna plazan.
- 18:00 Buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.
- 19:00 Helduen danborrada.
- 23:00 Kontzertua frontoian: Niko Etxart & Hapa Hapa taldea, Anje Duhalde bere taldea.
- 00:30 Helduen danborrada.
- 01:00 Kontzertuarekin jarraitzea.
- 02:30 Txosnaguneko kontzertua: Eskean Kristo, Eromeria.

Uztailak 2, larunbata

- 09:00 Esnadeia txistulariekin.
- 11:00 Haurrentzako BTT bizikleta irteera Mikel Laboa plazatik.
- 11:00 Helduentzako Santixabel Bola Txapelketa irekia.
- 12:00 Preso eta iheslarien eskubideen aldeko kantujira Kuxkuxtu txarangak lagunduta. Aitzagatik abiatuko da.
- 12:00 Soka-dantza Udaletxe aurrean. Jarraian, lore eta salda banaketa.

- 12:30 Trikitilarien kalejira: Usurbilgo Triku Taldea.
- 14:00 Kantu Zikiro-jana Askatasuna plazan, Kuxkuxturekin.
- 16:00 Haur eta gazteentzako Santixabel Bola Txapelketa irekia.
- 17:00 Ur eta Zikin jolasak Artzabalen.
- 18:00 Herri-kirolak eta idi-dema.
- 18:00 Buruhandi eta erraldoiak trikitilariekin.
- 18:30 Erromeria txosnetan: Oskar eta Aitziber Estanga.
- 19:00 Poteo elegantea txosnetatik abiatuta.
- 20:00 Euskal presoen eskubideen aldeko ekitaldia Olanonoko plazan (Potxoenea ondoan).
- 22:30 Kontzertua frontoian: Kezka + Hesian.
- 02:30 Las Tea Party Dj's txosnetan.

Uztailak 3, igandea

- 07:00 Eonian! Elektrotxaranga.
- 09:00 Gaupaseroen argazkia.
- 09:00 Esnadeia dultzaine

- roekin.
- 11:30 Zantzarrazak.
- 11:30 Erraldoi eta buruhandien I. Topaketa.
- 12:00 Herri Kirolak: Gipuzkoako 2. mailako Aizkolari Txapelketa eta Harri Jasotzaile Txapelketa.
- 14:00 Jubilatuen bazkaria Atxega jauregian.
- 16:00 Mus Txapelketa txosnetan.
- 16:00 Xakea haur eta helduentzat, Askatasuna plaza inguruan. Ekarrri kamiseta bat eta bertan margotuko dugu!.
- 16:30 Esku Pilota Txapelketa finalak.
- 17:00 Burrumba elektrotxaranga.
- 18:00 Auntoke txapelketa.
- 18:00 Erraldoi eta buruhandien I. Topaketa.
- 19:00 Paella lehiaketa txosnetan.
- 20:00 Bertsolariak: Oihana Iguaran, Unai Agirre, Eli Pagola eta Unai Mendizabal. Gai-jar-tzailea: Iñaxio Usarralde.
- 23:00 Maskota erretzea eta traka Dema plazan.
- Jarraian, Rukula + Erokome-ri erromeria txosnetan.

Xake partidak igande arratsean

Jolaserako proposamen berri bat jaiotan; xakea. Mahai joko ezaguna, plazara aterako dute formatu erraldoian, igande arratsaldeko 16:00etan. Xakezaleok gerturatu beraz, eguraldiaren arabera, Askatasuna plazako estalpean edo Potxoenea ondoko Olanoeneko plazan ospatuko den ekimenera. “Herrian seguru afizioa badela baina ez dakigu, ez baitago xake talderik. Horregatik, herrian ze afizio dagoen ikusteko animatu eta etorri jolastera”, luzatu dute gonbita.



Arratsaldeko 16:00etan hasiko dira partidak Olanoenean eta, euria egingo balu, Askatasuna plazako aterpean.

Haur, gazte eta heldu, adin guztietako xake zaleontzako ekimenak izango dira. Batetik, xake taulak modu librean jolasteko. Txikienez, libreki jolasteko xake erraldoia. Honez gain, aldi bereko xakean parte hartzeko aukera egongo da. Lagun bat talde batekin lehiatuko da, giza xake erraldoian. Horrela xake taula batekin bestera, zirkuitu modukoa osatuz.

Ekimenean parte hartuko du, Euskadiko xake txapelkun ohia emakumeetan. “Ideia da

ERIK JUEZ

Erik Juez aurten estreinakoz aritu da ikastaroak eskaintzen Lehen Hezkuntza osoan. “Afizio handia dago, harritura geratu naiz. Ikasi dute, gustura aritu dira”

ikusgarritasuna ematea baita emakume xakelariei”, berri

eman du hitzordu hau antolatzen dabilen Erik Juezek.

Xakelariak Udarregin

Usurbilen herri mailako xake talderik ez dago gaurkoz, baina etorkizunean nork daki. Harrobi modukoa osa daiteke. Ikusi bestela Udarregi Ikastolan dagoen zaletu mugimendua. Erik Juez aurten estreinakoz aritu da ikastaroak eskaintzen Lehen Hezkuntza osoan. “Afizio handia dago, harritura geratu naiz. Ikasi

dute, gustura aritu dira”, adierazi digu Erikek.

Kamisetak serigrafiazko aukera

Ikasturtea amaitzeko kamisetak serigrafiatu nahi zituzten. Lurra asko zikinduko zuten, eta gaztetxoek zuten ilusioa ikusita, xakeari loturiko ekitaldi honetan kamisetak serigrafiazko aukera egongo da. Eta arratsaldea borobiltzeko askaria izango da eta baita “oparixto bat ere parte hartzaileentzat”.

Bola txapelketa belaunaldi guztientzat

Hitzordu bikoitza aurtengo jaietan, Askatasuna plazako bolatokian. Gipuzkoako Bola Federazioak helduez gain, haur eta gazteentzako txapelketa antolatu du larunbat arratsalderako. Eskaera Udarregi Ikastolatik jaso zuten. Ikasleek interesa zutela eta jaietan ekimena antolatzea erabaki dute. Ia taldea osatzen den, ez bakarrik jaietarako. Urtean zehar ere boloetan aritzeko. Proba modukoa izango da, parte hartzera deitzen dute antolatzaileek.



Talde bat osatu nahi da, eta ez jaietarako bakarrik.

Uztailak 2:

11:00 Helduentzako Santixabel Bola Txapelketa irekia.

16:00 Haur / gazteentzako Santixabel Bola Txapelketa irekia. Bi saioak Askatasuna plazan.

